

Luka Elgarresta Azpiazu

D maila • 1 aipamena

Gabirian bizi den 12 urteko mutil bat naiz, anai bat eta arreba bat ditut, neu naizelarik gazteena.

Lehen hezkuntza Gabiriako Balentzategi herri eskolan egin nuen eta orain D.B.H. 2.maila egiten ari naiz Beasaingo Loinazpe institutoan.

Gabiriako bertso eskolan ibili izan naiz 5 urtez, nahiz eta aurtun ez nabilen.

Saxofoia, trikitixa eta panderoa jotzen ditut. Ingelesera ere joaten naiz. Euskal dantzak ere egiten ditut.

Bidaiatzea eta animaliekin egotea oso gustoko dut, baina, are gehiago nire lagunekin hitz egitea.



GABIRIA

Goia da gure gabiri
herri askoren inbidi
ta esaerak dion bezala
toki denetan agiri

Mendi kaskoan erdira
heldu gera Gabirira
ederki asko bizi gera han
goitik guztiei begira

Aizkorri eta Txindoki
Aratz, Aloña egoki
herri gutxitan ikusiko da
hemen bezainbeste toki

Ta herrian esperantza
kultur giroan ze doltsa
leku gutxitan uztartzen dira
bertsolaritza ta dantza

Ostatu bat du jateko
ta jatetxeak tarteko
leku ederra kuadrilarekin
egun pasa egiteko

Sarri diogun bezala
ezin ahaztu horrela
herri txikia infernu handi
sarri bilakatzen dela

Gure herriaren penak
ezin ba aitortu denak
horreke baitu alde txarrak ba
baina onenak gehienak

Sarri uzten gaitu mutu
Hona egiguzu kuku
Eta sinisten ez badituzu
Etorri ta ezagutu